

# ChatGPT, solaskide birtual jaioberria

OIHANA CABELLO

Kazetaria

**T**xat edo mezu bidezko aplikazioek aurrez aurreko elkarrizketak ordezkatu zituzten. Baina komunikatzeko modu horretan ere, pantaila bakoitzaren atzean, pertsonak egon dira oraintsu arte. Aurrerantzean, ordea, teknologia berriek eta Inteligentzia Artifizialak (IA) izan duten garapenarekin, baliteke hori guztia aldatzen joatea.


Gaur egun, jaioberria den baina da-goeneko aski ezaguna den tresna bati esker, posible da interlokutore bizidunik gabeko elkarrizketak izatea. ChatGPT da tresna horren izena, eta adituek diotenez, pertsona batek eman ditzakeen erantzunak emateko gai da. OpenAI enpresak garatu du eta Elon Musk asmatzaile, ingeniari eta enpresaria du buru. Zer den azaltzeko, ChatGPTk berak hau dio hitzez hitz: «ChatGPT da OpenAIk garatutako ia 1.75 miliardo parametro dituen neurri handiko hizkuntza eredu bat. GPTk 'Generative Pre-trained Transformer' esan nahi du, eta Deep Learning teknologian oinarritua dago. ChatGPTk testu sarrerak jaso, eta horien arabera, erantzunak sortzen ditu. GPTk hainbat erabiltzaileekin egin dituen interakzioetatik oinarritzko hizkuntza-sintaxia ikasten du. Horrela, erabiltzaileek ChatGPT-ri galdera bat egiten dioten bakoitzean, hizkuntza eredu analizatu eta testua ulertzen du, eta ondoren erantzuna sortu eta ematen du». Hainbat hizkuntza-

tan (munduko gehienetan) erabili daiteke, nahiz eta ez duen hizkuntza erabat zuzena erabiltzen.

Elhuyarreko Orai NLP Teknologiak languneko hizketa-teknologiaren arduradun Igor Leturiak ere antzeko definizioa egin du. Baina funtzionamendua ere aztertuta du. Alde batetik, Leturiak azaldu du ChatGPTk lengoaia-eredu neuronal bat duela. Lengoaia-ereduek, testu corpusetan oinarrituta, luzera ezberdinetako hitz-sekuentzien maiztasunak barnetatzen dituzte, eta, beste gauza batzuen artean, hasiera bat edo sarrera bat emanda, beste hitz-sekuentzia batzuk sor ditzakete egiazkotasun-probabilitateetan oinarrituta. Bestetik, txatbot bat izateko entrenatu da; hau da, galderak erantzuteko, eta elkarrizketa bakoitzaren historia (aurreko galderak eta erantzunak) kontuan izaten du erantzun berrietan. Konbinazio horiei eta entrenamenduko datu-kopuru itzelari esker, egiten zaizkion gai anitzetako galderei erantzun ongi egituratuak, lu-

zeak eta zuzen itxurakoak ematen dituela gaineratu du Elhuyarrekoak.

Teknizismo eta definizioetatik harago, adituek deritzote tresna interesgarria dela, oraindik garatzeko bidean dagoena. Aditu horietako bat da Alejandro Juez Latatu, kazetaria eta EnpresaBiDEA euskal hedabide digitaleko kolaboratzailea. Hain zuzen, hedabide hori erreferente da euskal herriko informazio ekonomiko eta enpresarialean. Juez Latatuk dioenez, edonoren eskura dagoen erreminta da. Nabigatzailean ChatGPT sartuta, izena eman besterik ez da egin behar. «Gero, txat moduko pantaila bat agertzen da, eta nahi duzuna galdetu dezakezu. Erantzunak 'arrazoiak' izaten dira; erantzun konkretua ematen du», zehaztu du. Inteligentzia Artifiziala erabili da tresna garatzeko, eta Googlek edo beste edozein bilatzailek egiten duten lanarekiko desberdina da. «Googlek webetan bilaketak egiten ditu eta ChatGPTk bilaketa naturala-goia egiten du», kazetariak dioenez.



Erabiltzaileak bururatzen zaion edozer galdetu dezake, eta ChatGPTk erantzun bat emango dio. Batzuetan zehatzagoa izango da, besteetan ez hainbeste. Leturiaren esanetan, ulertu behar da ChatGPT ez dela Adimen Artifizial Orokorra (ingelesez AGI, Artificial General Intelligence) deitzen zaiona; hau da, egitateak modu egituratua barneratu eta horien gainean arazoitzeko gai den tresna bat, ezta hori lortzeko saiakera bat ere. Finean, probabilitatearen arabera hitz konkatenatzaile bat da soilik: galdera baten edo uneko erantzun-zatiaren ondoren datorren hitz-sekuentzia probableena ematen du, besterik ez. Baina askotan asmatzen du, handia baita ikasteko eman zaion testu-kopurua».

Hala ere, Leturiak azaldu du entrenamenduko testu horietan gauza okerrak, kontraesankorrak, fikziozkoak... ere badaudela, eta horietan oinarritutako erantzuna eman dezakeela, eta gauza oso ezberdinak nahastu. «Gainera, txatbot on gisara, galdera guztiei erabiltzaileak gustura uzteko moduan erantzuten saiatzen da, eta informazioa falta badu 'asmatu egiten du' edo galdera egin den


moduaren arabera erantzuna moldatu. Baina hori guztia egiten du kontziente izan gabe egia esaten ari den, gezurretan ari den, asmatzen ari den.... Hitzak kateatzen ditu, besterik ez».

### Hilabete gutxitan ezaguna

Teknologia berri-berria izanda ere, dagoeneko erabiltzaile asko ditu ChatGPTk. Leturiak uste du izan duen arrakasta ematen dituen erantzunen egiantzan dagoela: «Linguistikoki eta egitura aldetik oso kalitate onekoak dira, luzeak eta arazoituak, eta, gainera, konfiantza osoz ematen ditu erantzunak, zuzenak izan zein ez». Hala ere, askotan erantzunak zuzenak dira. «Jauzi kualitatibo oso handia dago orain arteko txatbot-etatik honetara. Teknologiarekiko, robotekiko eta adimen artifizialerako dugun lilura eta makineta gizatasuna ikusteko dugun joera edo nahiak ere zerikusia izango dute. Azkenik, informazioa bilatzeko zein testuak idazteko lanak errazteko ematen duen aukera dago».

Besteak beste, olerki bat idazteko eskatu diezaiokezu ChatGPTri, edo abesti baterako letra konposatzeko. Telesai-

len gidioak idazteko gai ere badela diote batzuek. Juez Lataturen esanetan, «oraindik ez dugu asko ulertzen zer dakarren: gizaki batekin hitz egitea bezala da». Hala ere, lanpostu batzuk birmoldatzea ekar dezakeela aipatu du: «Tresna honek aukera ematen du kazetarien lana aldatzeko edo, agian, kazetarien lana egiteko gai ere izango da; alegia, testuak idazteko eta etorkizunean informazioa bilatzeko. Gaur egun dena dago sarean, eta, adibidez, Turkiako lurrikararen harira, jende askok argazkiak, bideoak eta informazioa eskegi ditu Interneten. IAK datu horiek hartu ditzake, eta informazioa idatzi kazetarietara bezala. Oraindik agian ez da posible, baina litekeena da ChatGPTk aukera hori ematea etorkizunean». Begi onez ikusten du IAren aurrerapen berria: «Googleren sorrera izan zen bezalakoa, guztiz iraultzailea momentu hartan. Bilaketak egiteko, Google sortu aurretik, URLa sartu behar zen Interneten, eta Googlek lortu zuen hitz batzuk idatziz bilaketa horiek egitea. Orain, ChatGPT aurrerapauso handia izan daiteke. Nik uste dut geratzeko etorri dela».




Teknologia aurreratuek eta inteligenzia artifizialak pertsonen lana egitearen kezka dagokionez, Leturiak dio tresna berriak lanak errazteko aukera ematen duela, eta zenbait profesionalen lana ere egin ahal izatea erosotasun kontrapuntua dela. «Berez, horrek ez du esan nahi lanpostuak galduko direnik derrigorrez. Itzulpen automatikoa itzulpengintzaren sektorerara aldatetak ekartzen ari da: itzultzaileek tresnak baliatu ditzakete eta ondoren zuzenketa lana egin. Horrela, prozesuan denbora aurrezten dute. Baina horrek bi ondorio izan ditzake: gastuak murriztu daitezke eta lanpostuak galdu, edo itzulpen askoz gehiago egin daitezke inbertsio berekin. Honekin gauza bera da».

Gainera, Leturiak uste du kostuak aurrezteagatik testuak akatsekin argitaratzeko arriskua egon daitekeela, «eta ChatGPT modukoekin gauza bera gerta daiteke: testu eta informazio okerre bete daitezke sareak eta komunikabideak. Arrisku horiek gorabehera, Elhuyarrekoak dio ekidinezina izango dela testuak sortzen dituzten sektore askotan, kazetaritzan edo irakaskuntzan kasurako, aldatetak nabaritzea. Uste du modu egokiagoan edo okerragoan alda daitekeela, lanpostuak galdu eta testuen kalitatea jaitsi edo kalitate oneko testu gehiago izan. «Gizarteak markatuko du zer gertatuko den, ez da teknologiaren berezko ondorioa», gaineratu du.

Beste eztabaida bat izan da adimen artifizialak gizakiak tentelduko ote dituen. Internet sortu zenean ere izan zen eztabaida hori, baina Alejandro Juez Latatuk du halako arriskurik ikusten. «Gaur egun eskoletan edo unibertsitatean dauden ikasleak ez dira liburutegira joaten informazioa bilatzera. Minutu gutxitan eskura daukate informazio hori, eta horrek ere tentelduko gintuela esaten zen. Hala ere, ez da halakorik demostratu.



## ERREPORTAJEA



dugu; aldiz, txatbot hauetako batek zuzenean ematen digu erantzuna, eta ondorioz, lana aurrezten da. Askoz erosoagoa da, baina ezin dugu informazioa zuzena den jakin».

Bestalde, horrelako kontuek eragin handia izan dezakete webaren ekosisteman. Leturiak dio bilatzaileek erantzuna zuzenean ematen badute eta jendeak ez badu emaitzen webguneetan sartu beharrik, webgune askok bisita ugari gal ditzaketela, «eta gerta daiteke ekonomikoki eutsi ezin izatea. Gainera, bilatzailean txatbotak integratzearen kostua finantzatzeko moduak ere aztertu beharko dituzte (publizitatea sartu, ordainpeko egin...)». Azkenik, eredu erraldoi hauen erabilera masiboak leukakeen aztarna ekologikoa ere aipatu du Leturiak: «Gai korapilatsua da, eta bilatzaileak azkarregi ari dira pausoak ematen, edo iragartzen behintzat».

### Euskararen presentzia

Etorkizunera begira, Leturiak aurreikusten du txatbotak garatu eta hobetuko direla. «Eta ez txatbotak soilik; gero eta adimen artifizial sortzaile gehiago ari gara ikusten testuetarako, irudietarako, audiorako, bideorako... Aldaketa handiak ekarriko dituzte horiek guztiek etorkizun hurbilean zein urrunekoan, eta ez da erraza ekarriko duten guztia aurreikustea. Jada aipatu ditugu erabilera pertsonalerako izan dezakeen lan-aurrezte eta erosotasuna fidaga-

rritasunaren kaltetan, zein lanpostu askotan izan dezakeen eragina, onerako edo txarrerako». Gainera, informazio okerraren uholde posiblea ere hor dago, eta toki askotan entzun izan da ikasleen idazlanen autentikotasuna ebaluatzeko zailtasunen kontua. Baina, horiez gain, NLPn lanean diharduen informatikari gisa, beretzat garrantzitsuak diren bi puntu aipatu nahiko litzuzke Leturiak, teknologia hauekiko betiko kezka: «Batetik, kontuan izan behar da ChatGPTk euskara barne badu ere, oso proportzio txikian duela, eta euskarazko galderekin edo euskal gaien ingurukoekin emaitzak momentuz ez direla hain onak. Eta ohikoa izaten da multinazional erraldoiek garatutako NLP teknologietan euskara barne ez egotea edo euskaraz gaizki funtzionatzea. Hala, jende asko teknologia hauek beste hizkuntza batzuetan erabiltzen hasten da, euskara baztertuta, eta horretara ohitzen da, eta horrek euskararentzat beste esparru bat galtzea dakar» -Leturiaren esanetan-. «Aldiz, bertoko eragileok askotan frogatu dugu euskararako berariazko lanketa eginda emaitza oso onak lortzeko gai garela, maiz erraldoi teknologikoenak baino hobek. Baina zenbait arrazoiengatik (beranduxeago iristen garelako, edo bertan sortutako teknologia ez ezagutzeagatik, edo kanpokoak sortzen duen erakarpenagatik, edo multinazionalen teknologiak gailuetan eskuragarriago egoten dire-

lako...), erraldoien teknologiak eta beste hizkuntza batzuetan erabiltzen jarraitzen dugu».

Beste kezka bat ere badu Elhuyarrek Orai NLP Teknologiak languneko hizketa-teknologiaren arduradunak; alegia, tresna horiekiko xarmak erakarrira, itsu-itsuan esparru askotan erabiltzen hastea eta multinazional teknologikoeikiko dependentzia handitzea. «Beste arlo ugarritan jada jabetzen ari gara dependentzia horren kalteez, burujabetza teknologikoan sakontzearen beharraz eta dependentzia egoera horri buelta ematearen zailtasunez. Txatbot hauek hausnarketa edo izpiritu kritiko edo prekauziozko-denborarik gabe erabiltzen hasiz gero, gauza bera gerta daiteke berriz», esan du.

Ikusteko dago teknologia berri hauek nola garatzen diren, eta euskarak euskarri teknologiko horietan zein leku hartzen duen. Zailtasunak ere aipatu ditu Leturiak: «Batetik, ikusteko dago euskara moduko hizkuntza batentzat jasangarria ote den teknologia hauek eta etorkizunekoak geroz eta datu gehiago izatean oinarritzeko joera hori, nahiko genukeen bezainbeste datu ez baitugu euskaraz. Bestetik, egitura erraldoi eta gero eta handiago horiek biltegitratzea, entrenatzea eta maneiatzea ez dago edonoren esku, eta, beharbada, ezingo da egon herri honetako eragileon esku». ■